

XagunArtea

2009ko urtarrilaren 19a

Xagun aldizkaria

37. alea

Elurra mara-mara



Gabonak giro ederrean ospatu genituen



A benduaren 24a giro paregabe-arekin esnatu zen. Bi talde etxez etxe kantuan eta eskean aritu ziren. Talde handia goiz eta arratsalde aritu zen eta herriko etxe guztiak pasa zituen. Guztira 1.357 € bildu zituzten eta diru horren erdia Oa kultur elkarterako izango da eta beste erdia katekesirako.

Herriko ume, guraso eta irakasle-en taldea goizean aritu zen kantuan herrigune aldean. 874 € batu zituzten.

Hortik 513 € (700 dolar) El Salvadorgo San Dieguito eskolara bidali dute. Horretarako herriko haurrak Donostian izan ziren Salvadorren bizi den Eli Landa donostiarrari dirua emateko. Kantuan ibili ziren guztien partez eskerrik asko herritar denei.

Iluntze partean Olentzero karro gainean iritsi zen plaza aldera. Opariak eta gaztainak banatu zituen, urteko gau majikoaren aurretik.

Sahararen aldeko euskal karabana

Zeraingo Udaleko Gizarte Zerbitzuek Saharar herriari lagundu nahian, Zerainen urtarrilaren 20tik otsailaren 6ra elikagai bilketaren kanpaina egingo da.

Kanpaina honetan lau produktu konkretu bilduko dira: **atun latak, azukrea, lentejak eta konpresak**. Bilketa egin ondoren, Sahararen aldeko Euskal Karabanaren bidez, Saharara eramango dira produktu hauek laguntza zuzena emateko. Zerainen antolatu diren bilketa guneak hiru dira: **Udaletxea, Mandioa denda eta eskola**. Denon laguntza premiazkoa izango da, animatu zaitezte.

2008ko zentsua

2008ko urtean zehar zentsuan izandako gorabeheren ondoren, abenduaren 31an 245 biztanle ditu Zerainek. Urtean zehar 5 alta izan dira; hauetatik 2 jaiotzak. Eta 6 baja; hauetatik 3 heriotzak.

Zerain Segura Irratian

Segura Irratian Goierriko herriak eza-gutzeko egiten duten Eutera saioan Zerain izango da protagonista urtarrilaren 24 eta 31an, goizeko 11etan.



Txotx!!!!

Urtarrilaren 16an, Otatzako eta Oiharteko kupeletako ziriak ireki zituzten, eta hala eman zioten hasiera sagardo denboraldiari. Otatzan Jose Manuel Oria alkateak egin zuen lehen tragoa. Oiharten berriz, protagonista etxeko txikia izan zen.

Sagar-urte paregabea izan da aurtengoa, eta ondorioz, bertako sagarrarekin bakarrik egin ahal izan dute Oiharteko eta Otatzako sagardo guztia. Behin sagardo denboraldia hasita, hemendik Aste Santu aldera arte, otordu ederrak egin eta sagardo bikaina edateko aukera izango da Zeraingo sagardotegietan.



Enblango. Lekaiu

Kantu zaharrak dioen moduan, "mendi gainean elurra dago, errekonduan izotza". Gogor samar hasi da aurtengo negua. Mendian gora eta behera elurretan ibiltzeko gogor handirik ez, eta maduran barrena hor joan gara Xanti eta biok Mutiloara. Handik Barnaolara, erreka-bazterretik, eta gero trenbide zaharberrietatik Liernira. Bueltan Mutiloara jaitsi eta ostatura sartu gara, basoerdi bana ardo hartzera. Olanoko Joxe Alustizarekin egin du topo, sartu orduko. Baita berrikerian hasi ere. Hor ateratu da, berandu gabe, Xaguartekeko hitz-kontua. Baietz, gus-tura irakurri duela azken alea, baina beste hitzik ere baduela golkoan: *enblango*, batetik, eta bestetik *lekaiu*. Arrazoi du Joxek: aurrekoan ere aipatu zigun *enblango* horrena, eta guri ahaztu. *Lekaiu* ere gogoangarria dela dio. Biak jasoko ditugu, beraz, gaurkoan.

ENBLANGO

Mutiloan ardia jokatu behar dute, inoiz, hitz hori dela medio. Alferrik ordea: liburuetan begiratzen ibili, hiztegiak hiztegi, eta inon topatu ez. Erabilia omen da ordea, Mutiloan. Baietz dio Xantik: Larraondon ere entzuna omen du. Zer esan nahi du *enblango* horrek? Zertarako erabiltzen zen, Mutiloan eta Zerainen? Gauza debila adierazteko: mugitzen den gauza, fijo ez dagoena,.... Joxeren adibideak baliaturik, honela erabiltzen omen zen: "bai mutiko *enblangoa!*", edota "baratzako hesi hori ere *enblango* daukagu"

Zer diote hiztegiek? Ezer gutxi. Orotariko Euskal Hiztegiari jo dut, informazio eske. Gipuzkoako adibide edo aipamen bakar bat ez da agertzen, *enblango* horretaz. Ez Gipuzkoakorik eta ez Hegoalde osokorik. Bada, aldiz, aipamen labur bat Iparraldean, Baxenafarroan. Ez justu-justu *enblango*, baina bai bere iturria dirudien *enblanko*. Honela dio hiztegiak, frantsesez: "point de doute ou d'incertitude, si telle chose se fera ou ne se fera pas, ou si tel objet tombera ou non". Hots, "zalantzazko gauza"

da iparralde horretan *enblanko*, "eriko den edo ez den argi ez dagoena". Ez al da horixe, hain zuzen, Joxek eman digun adibide argia? Baietz esango nuke nik.

Bada gero kuriosoa: Goierriko puntan esaten den hitza aski zabal ibilitakoa da noizbait, han-hemen: Baxenafarroan ere erabili izan da, behintzat. Eta horra non, gure arteko aipamen txikiak ere jasotzen ez duen euskal hiztegiak zabalenean. Zer pentsatua ematen du horrek. Badira hitzak, nolabait esan, egunero hizkera arruntean normal-normal erabili izan direnak hitzez eta, hiztegiari ia sarbiderik izatera iritsi ere gabe, hiltzeko puntuan daudenak.

Amai dezagun *enblango* honekin. Nondik ote dator hitza? Gaztelaniazko "en blanco" sekuentziatik? Egia esateko, ez dakit. Baliteke hala izatea. Pareko adibiderik ez zaigu falta. Egunero erabiltzen dugun *auskalo*, esate baterako, bada-kigu "a buscarlo"-tik datorrela. Horrelakoa ote da ere? Zuek duzue hitza.

LEKAIU, LEKAIU

Eulogio Murgiarangoak, Euskadi Irratira joanda, hitz honekin gora eta behera ibilia izan behar zuen bere garaian. Galtzen ari omen da orain. Ondotxo beteago dago hiztegia, ordea, hitz honekin. Batez ere Gipuzkoan erabili izan da, itxuraz: bizkaierazko Gipuzkoan batetik (Oñatin, Bergaran, Antzuolan,..), eta Goierri bestetik. Nafarroan ere jasoa dago adibideren bat, baina ezer gutxi. Oso hemengo hitza dugu beraz, itxura batean, *lekaiu*. Hitza nondik datorkeen argitzeko, hona zer dioten OEH hiztegiak: gaztelaniazko "lacayo"-rekin balukeela harremanik.

Gure artean zer esan nahi du gaur egun *lekaiu* edo *lekaiuk*? Horra Joxe Alustizak zer dioten, adibidez: "zakurrak gau osoa lekaiuka jardun du". Eta zer dio OEH hiztegiak? Honako hau: "clamor, relincho



Zakurrak lekaiuka jarduten dira maiz.

humano, grito largo". Aurreraxeago, berriz, beste hau: "kantarien boza, festa-oihua, irrintzia". Ondo ezkontzen da hiztegiaren definizio hori, partez behintzat, zakurrak gau osoz *lekaiuka* jardutearekin. Diferentzia bakarra dago: hiztegiaren definizioan, eta bertako adibide guztietan, giza-karen irrintzia da *lekaiu*; Mutiloako adibidean, berriz, zakurrarena. Azken hau metaforazko erabilera izan liteke, agian. Bukatzeko, *lekaiu*ren adibide batzuk emango ditugu. Lehenengoak bizkaierazko eremukoak eta, beraz, hango moduan esanak: "aber zeñek itten daben lekaiu luziaua", "kantau asko egin, da lekaiu sari". Bukatzeko, itzul gaitezen Goierri. Inguruotakoak-edo dira adibideok: "Gaztetuta, alaituta, lekaiu bana egiteko gogoetan" eta "Irrintzi, poz dardar, lekaiu ta laztan". Segurako adibide zahar bat, bukateko. Aierberen 1915eko testuan esaldi hau ageri da: "Irrintzi edo lekaiu egiten ari dan gizona".

Garbi dago, beraz, oso antzekoak direla lekaiu eta irrintzi. Zergatik ari da lehenengoak galtzen, eta indar batean dago bigarrena? Galdera erraza dirudi, baina ez da batere samurra. Ea inork hozka egiten dion. Merezi luke proba egitea, surtan jartzean jakiten baita eltzeta nolakoa den. Hurrengoan gehiago, nolahi ere. Urte berri on.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

ABENDUA	al	ar	az	og	or	lr	lg
	1	2	3	4	5	6	7
Euria (l/m)	22	25	15	7	15	7	0,5
C° altuena	6	4	6	8	11	10	9
C° baxuena	4	0	2	6	8	6	7
	8	9	10	11	12	13	14
Euria (l/m)	8	20	33	11	0,5	17	7
C° altuena	15	12	8	2	5	8	8
C° baxuena	12	6	2	0	2	3	1
	15	16	17	18	19	20	21
Euria (l/m)	15	0,5	11	6,5	0,5	0,25	0
C° altuena	5	6	8	9	7	9	11
C° baxuena	0	4	6	6	6	6	6
	22	23	24	25	26	27	28
Euria (l/m)	0	0	0	0	10	1,5	0
C° altuena	10	6	9	11	8	4	9
C° baxuena	0	-2	-1	-1,5	0	1	7
	29	30	31				
Euria (l/m)	0	2,5	0	GUZTIRA: 235,75 l.			
C° altuena	9	9	11	ALTUENA: 15°			
C° baxuena	6	6	7	BAXUENA: -2°			

Abendua ere bustia, 2008 guztia bezala

235 litro pasatxo utzi dizkigu abendua, batez ere, lehen bi asteetan ia atertu gabe aritu zuelako. Temperatura aldetik ere, negu garai-koak izan genituen, zeropekoak eta izotz eta guzti. 2008ra begiratuta berriz, azken urteetako eurtsuena askogatik: 1700 litro pasatxo. Lehorte handirik ez da izan behintzat!



	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Urtarrila	133	36	231,5	45	283	223,5	121,5	91	139	104,75
Otsaila	201	133,5	89,5	170,25	152	145	164,5	89	152,5	30
Martxoa	171,5	110	154,75	40,5	69,25	120,25	96	193,25	320	311,5
Apirila	131,75	159,25	122,5	100	79	132	236,5	74	130	173
Maiatza	110,75	62	43,5	171	116	82	86,5	31	114	171
Ekaina	47,75	57,5	35	84,75	55	22,25	15,25	90,75	52	137
Uztaila	126,25	108	116,5	61,25	15,75	44,5	9	29	36	17
Abuztua	50,75	71	17,25	126,25	37,5	60,5	87	32,25	120,75	72,2
Iraila	89	29	45,5	42	76,5	133,5	68	130	66,5	32,85
Urria	34	259	56,5	120	207	83	98,5	99	123,5	151
Azaroa	189	244,5	194,75	178,75	180,5	175,5	312	117,5	49,25	268
Abendua	242	145,75	37	314,5	211	223	174,25	97,75	93,5	235,75
GUZTIRA	1526,75	1415,5	1144,25	1454,25	1482,5	1445	1469	1074,5	1397	1704,05



San Blas eguna

Otsailaren 3an, San Blas ermitako ohiko meza eta janari bedeinkapena arratsaldeko 6etan izango dira. Ondoren merienda emango du Udalak Liztormendin.

Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4an, urtero bezala, eta ohitura zaharrari jarraituz, herritar talde bat etxez etxe koplak kantari ibiliko da arratsalde-iluntze partean.

Mus eta tute txapelketak Liztormendin

Urteroko moduan, neguarekin batera bi karta-jokotako txapelketak antolatu ditu Liztormendi elkarteak. Tute txapelketa urtarrilaren 31n izango da eta mus txapelketa otsailaren 14an.